

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2014ko “Nafarroako Erresuma” Turismo Sarietarako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu da

Martxoaren 4a arte aurkeztu ahalko dira hautagaiak

Miércoles, 12 de febrero de 2014

Turismoko Zuzendaritza Nagusiak bihar zabalduko du 2014ko "Nafarroako Erresuma" Turismo Sarietarako hautagaiak aurkezteko epea, gaur goizean [NAO](#)ean sari horien prozedura arautzen duen deialdia onartzeko foru-agindua argitaratu ondoren. Hautagaiak martxoaren 4a arte aurketu ahalko dira.

Urtero antolatzen den "Nafarroako Erresuma" Turismo Sarien helburua Nafarroako turismoaren alde egindako lana aitortzea da. Nolanahi ere, deialdi berriak jasotako mailak aldatzen ditu eta honako modalitate hauek hartzen ditu barnean: 1- Toki Erakundeak, turismoko partzuergoak eta elkarteak. Eta 2- Turismoko enpresak edo enpresariak ondorengo modalitateetan: a) Ostatua, b) Sukaldaritza eta c) Ikerketa, Garapena, Berrikuntza eta Turismoko Zerbitzuak Ematea.

Testuak ezartzen du proposamenak aurkeztu ahalko dituztela: Nafarroako Turismo Kontseiluan ordezkariak duten erakundeek, Nafarroako Turismo Erregistroan izena emandako elkarteek, Nafarroako Turismo Erregistroan izena emandako sektoreko 5 enpresak edo gehiagok, tokiko 5 erakunde edo gehiagok, eta beren Nortasun Agiri Nazionalako zenbakiarekin identifikatutako 50 pertsonak edo gehiagok.

Proposamenak pertsona edo erakunde guztiek izenpetu behar dituzte eta haiekin batera, alde batetik, justifikatzen duten merezimenduen arrazoitutako azalpena aurkeztu behar da, eta bestetik, proposamena babesten duten pertsona fisiko edo juridikoen zerrenda.

Eskaerak Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuko Erregistroan aurkeztuko dira edo Administrazio Publikoetako eta Administrazio Prozedura Erkideko Erregimen Juridikoko Legeari ezarritako edozein tokitan, eta Turismo eta Merkataritzako Zuzendari Nagusira zuzenduko dira.